

garraio publikoa

Gipuzkoa



**Mugirekin,
zu irabazle**



Gipuzkoako Garraioak
Gipuzkoako Garraioaren
Lurralde Agintaritza

Transportes de Gipuzkoa
Autoridad Territorial del
Transporte de Gipuzkoa

i 943 000 117

www.mugipuzkoa.com



Zer da Mugi Sistema?

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak martxan jarritako tarifa-sistema bateratu berria da. Mugi Sistemak abantaila ugari eskaintzen die Gipuzkoako garraio publikoaren ohiko erabiltzaileei, eta aukera ematen du garraio publiko guztietan euskarri bakarrarekin bidaiatzeko.


Zer abantailak ditu Mugik?

Mugi Sistemak eskaintzen duena:

- **Ordaintzeko modu komuna:** txartel bakarra garraio guztietarako.
- **Tarifa-sistema eta eremuak bereizteko sistema komunak:** kostu berbera garraio bide ezberdinetan egindako bidaietarako, eta tarifa bateratuak ibilbide guztietarako.
- **Erabileraren araberako deskontuak:** zenbat eta gehiago erabili garraio publikoa, are eta merkeago.
- **Garraio-aldaketak baldintza onetan:** garraiatzaile berarekin egindako bidaietan garraio-aldaketak doan izango dira, eta deskontuak aplikatuko dira garraiatzaile ezberdinekin egindakoetan.
- **Talde bereziak:** talde bereziei zuzendutako hobariak.



Tarifa sistema bateratua eta eremuak



Mugi Sistemak tarifa bateratuak eskaintzen dizkie erabiltzaile guztiei, eta eremuak bereizteko sistema komun batean oinarritzen da.

14 eremu bereiziko dira, eta erabiltzaileek Mugi euskarrria besterik ez dute beharko horietatik bidaiatzeko.

Zonaldeak

1 BIDASOA BEHEA
HONDARRIBIA
IRUN

2 DONOSTIALDEA
ANDOAIN
ASTIGARRAGA
DONOSTIA
ERRENTERIA
HERNANI
LASARTE
LEZO
OIARTZUN
PASAIA
URNIETA
USURBIL

3 UROLA KOSTA
AIA
AIZARNAZABAL
GETARIA
ORIO
ZARAUTZ
ZUMAIA

4 DEBABARRENA
DEBA
EIBAR
ELGOIBAR
ERMUA
MALLABIA
MENDARO
MUTRIKU
ONDARROA
SORALUZE

5 DURANGALDEA
ABADIÑO
BERRIZ
DURANGO
ELORRIO
ZALDIBAR

6 ARRATIA-AMOREBIETA
AMOREBIETA
BEDIA
GALDAKAO
LEMOA

7 BILBO
BASAURI
BILBO
ETXEBARRI

8 BUSTURIALDEA
BERMEO
BUSTURIA
FORUA
GERNIKA
MUNDAKA
MUXIKA

9 TOLOSALDEA
ABALTZISKETA
ADUNA
ALBIZTUR
ALEGIA
ALKIZA
ALTZO
AMEZKETA
ANOETA
ASTEASU
BALIARRAIN

BELAUNTA
BERASTEGI
BERROBI
BIDEGOIAN
ELDUAEN
GAZTELU
HERNIALDE
IBARRA
IKAZTEGIETA
IRURA
LARRAUL
LEABURU
LIZARTZA
ORENDAIN
OREXA
TOLOSA
VILLABONA
ZIZURKIL

10 GOIERRI
ALTZAGA
ARAMA
ATAUN
BEASAIN

EZKIO-ITSASO
GABIRIA
GAINTZA
IDIAZABAL
ITSASONDO
LAZKAO
LEGAZPI
LEGORRETA
MUTILOA
OLABERRIA
ORDIZIA
ORMAIZTEGI
SEGURA
URRET XU
ZALDIBIA
ZEGAMA
ZERAIN
ZUMARRAGA

11 DEBAGOIENA
ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA

ELGETA
ESKORITATZA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI

12 UROLA ERDIA
AZKOITIA
AZPEITIA
BEIZAMA
ERREZIL
ZESTOA

13 LEKEITIO-BERRIATUA
BERRIATUA
LEKEITIO

14 ARABA
ARRAZUA-UBARRUNDIA

15 VITORIA-GASTEIZ
VITORIA-GASTEIZ

Eskualdeen arteko jauzien taula

	BIDASOA-BEHEA	DONOSTIALDEA	UROLA KOSTA	DEBABARRENA	DURANGALDEA	ARRATIA-AMOREBIETA	BILBO	BUSTURIALDEA	TOLOSALDEA	GOIERRI	DEBAGOIENA	UROLA ERDIA	LEKEITIO-BERRIATUA	ARABA	VITORIA-GASTEIZ
BIDASOA-BEHEA	0	1	2	3	4	5	6	6	2	3					
DONOSTIALDEA	1	0	1	2	3	4	5	5	1	2	3	2	3	4	5
UROLA KOSTA	2	1	0	1	2	3	4	4		2	2	1			
DEBABARRENA	3	2	1	0	1	2	3	3			1	1	1	2	3
DURANGALDEA	4	3	2	1	0	1	2	2	3	2	1				
ARRATIA-AMOREBIETA	5	4	3	2	1	0	1	1	4	3	2				
BILBO	6	5	4	3	2	1	0	2	5	4	3				
BUSTURIALDEA	6	5	4	3	2	1	2	0							
TOLOSALDEA	2	1			3	4	5		0	1	2	1			
GOIERRI	3	2	2		2	3	4		1	0	1	1			
DEBAGOIENA		3	2	1	1	2	3		2	1	0			1	2
UROLA ERDIA		2	1	1					1	1		0			
LEKEITIO-BERRIATUA		3		1									0		
ARABA		4		2							1			0	1
VITORIA-GASTEIZ		5		3							2			1	0



Deskontuak

Sistema berriak deskontuak eskainiko ditu, garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak saritzeko.

3 erabilera-tarte ezarri dira, eta tarte bakoitzari deskontu jakin bat dagokio:

- **1-20 bidaia:** %45eko deskontua noizbehinkako txartelaren aldean.
- **21-50 bidaia:** %56ko deskontua noizbehinkako txartelaren aldean.
- **51 bidaia edo gehiago:** %90ko deskontua noizbehinkako txartelaren aldean.

* Deskontuak hilabete naturalaren barruan aplikatuko dira.

* Bidaia-kontagailua hutsetik hasiko da hileru.

Garraio aldaketak

Mugi Sistemarekin, garraio publikoaren ohiko erabiltzaileek hobariak jasoko dituzte garraio-aldaketak egiteko, garraiatzaile berarekin zein ezberdinekin egindako bidaietan.

- **Garraiatzaile berarekin:** doakoa.
- **Garraiatzaile ezberdinekin:** txartel garestiena ordainduko da eta merkeenaren %25.

Taldeak

Mugi sistemak bost talde bereizi ditu, eta talde horretako erabiltzaileek hobariak alde aurretik jasoko dituzte, txartela kargatzeko unean bertan. Hau da, erabiltzaileak txartela kargatzen duen bakoitzean, kopuru bat gehituko zaio hobari gisa.

Familia Ugariak

- Orokorra:
 - %25eko hobaria.
- Berezia:
 - %100eko hobaria.

%65eko edo gehiagoko ezintasuna dutenak

- %108ko hobaria.

25 urtetik beherako gazteak

- %14ko hobaria.

65 urtetik gorakoak

- %108ko hobaria.

Soziala

- %108ko hobaria.



Gazteak, Adinekoak, Ezinduak eta Soziala txartelaren jabea Familia Ugaria 20 edo 50 taldekoa baldin bada, Familia ugariako kide izategatik dagokion hobaria ere jasoko du.

Lurraldebus eta Mugi Gazteak + FU 20

• %39ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Adinekoak + FU 20

• %133ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Ezinduak + FU 20

• %133ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Soziala + FU 20

• %133ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Gazteak + FU 50

• %114ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Adinekoak + FU 50

• %208ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Ezinduak + FU 50

• %208ko hobaria.

Lurraldebus eta Mugi Soziala + FU 50

• %208ko hobaria.

* Ikus talde berezientzako baldintzak www.mugipuzkoa.com webgunean edo deitu 943 000 117 telefono-zenbakira.



Tarifak

		KONDIZIOAK	HIRI-AUTOBUSA 0 JAUZI	JAUZI 1	2 JAUZI	3 JAUZI	4 JAUZI	5 JAUZI	6 JAUZI	2 HIRI-AUTOBUS	3 HIRI-AUTOBUS	
NOIZBEHINKAKO TXARTELA (PAPERZKOAK)	-	-	1,60 €	2,30 €	4,40 €	6,50 €	8,50 €	11,50 €	12,50 €	1,30 €	1,10 €	
1. TARTEA: ARRUNTA 1-20 bidaia	desk.	%45	0,88 €	1,27 €	2,42 €	3,58 €	4,68 €	6,33 €	6,88 €	0,72 €	0,61 €	
2. TARTEA: ARRUNTA 21-50 bidaia	desk.	%56	0,70 €	1,01 €	1,94 €	2,86 €	3,74 €	5,06 €	5,50 €	0,57 €	0,48 €	
3. TARTEA: ARRUNTA 51 bidaia edo gehiago	desk.	%90	0,16 €	0,23 €	0,44 €	0,65 €	0,85 €	1,15 €	1,25 €	0,13 €	0,11 €	
GAUEKOA		-	2,00 €	2,95 €	-	-	-	-	-	-	-	
GARRAIO-ALDAKETA INTRAMODALA		DOAKOA	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	
GARRAIO-ALDAKETA INTERMODALA		%25	Bidaia garestiena ordainduko da eta merkeenaren % 25 (adierazitako zenbatekoa lehendabiziko deskontu-tarteari dagokio (% 45). Deskontu-tartea handiagoa bada, tarteari dagokion deskontua aplikatuko da)	0,22 €	0,32 €	0,61 €	0,90 €	1,17 €	1,58 €	1,72 €	0,18 €	0,15 €

* Los niños abonarán el viaje a partir de cumplir 5 años.

* Talde bereziei dagozkien tarifak www.mugipuzkoa.com webgunean eskuragarri daude.



Non erabil daiteke?

Mugi sistema Gipuzkoako garraio publiko guztietan ezarri da:

- **Trenbideak:** EuskoTren eta Renfe (txanpon-txartel gisa).
- **Autobusak:** Lurraldebus eta Donostia (Dbus), Errenteria, Irun, Arrasate eta Hernaniko hiri-autobusak.

Nola eskuratu Mugi txartela?

Mugi txartela eskuratzeko, dokumentu hauek entregatu behar dira: behar bezala betetako eta sinatutako formularioa, NANaren, AIZaren edo pasaportearen Fotokopia eta argazki bat (karnet tamainakoa).

Dokumentu horiek salmenta-guneetara eraman daitezke, edo posta edota internet bidez bidali.

* Talde berezietako kideek berariazko dokumentazioa aurkeztu behar dute. Ikus aurkeztu beharrekoak www.mugipuzkoa.com webgunean.



Txartel motak

Sistema berriak barne hartzen ditu Lurreldebus txartela eta Mugi txartel berria. Bi txartel horiek hobari berberak eskaintzen dituzte, hortaz, Lurreldebus txartela duenak ez du Mugi txartel berria egin behar.

Txartel arruntak, Familia ugariaren txartelak, Txartel sozialak eta Gazteak txartelak (18 urtetik beherakoak) zuzenean erabili ahal izango dira Mugi sistema berrian.

Gainerako talde berezietako Lurreldebus txartela dutenek (Adinekoek, Ezinduek eta 18 urtetik gorako Gazteek) egiaztatu egin behar dute beren errentak ez duela 2,5ez edo gehiagoz biderkatzen IPREM adierazlea (15.975,32€). Errenta-eskakizun hori betetzen dutenek, dagoeneko baduten Lurreldebus txartela erabiltzen jarrai dezakete, eta betetzen ez dutenek, berriz, Mugi txartela berria eskatu behar dute.

3 txartel mota daude:

Arrunta

- Txartelak titularraren argazkia eta datu pertsonalak ditu.
- Mugi sistemak eskaintzen dituen onurez gozatzeko aukera ematen dio erabiltzaileari.
- Txartelaren jabeak egindako bidaiak soilik indargabetu daitezke.

Taldeak

- Titularra talde jakin baten kide dela ziurtatzen duen txartel pertsonalizatua.
- Txartelak titularraren argazkia eta datu pertsonalak ditu.
- Titularrak egindako bidaiak soilik indargabetu daitezke.
- Deskontu espezifikokoak.

Anonimoa

- Titularrik gabeko txartela da, eta deskontuak eskaintzen ditu Mugi Sistemako lehen erabilera-tartetik aurrera (1-20 bidaiak).
- Hainbat pertsonen bidaiak balioztatuta daitezke. Gehienez ere, 9 bidaiak Lurreldebusen eta bidaiak mugabeak Dbusen.



Kargatzeko guneak

Mugi sistemak txartelak **kargatzeko 600 bat gune** ditu: prentsa-saltokiak, bulego publikoak, posta-bulegoak, eta Kutxabankeko kutxazain automatiko jakin batzuk. Era berean, xede horretarako egokitutako makina automatikoetan karga daitezke txartelak, eta baita www.mugipuzkoa.com webguneko eremu pribatuan ere.



Bezerearentzako informazioa:

www.mugipuzkoa.com

 943 000 117



Gipuzkoako Garraioak
Gipuzkoako Garraioaren
Lurralde Agintaritzak

Transportes de Gipuzkoa
Autoridad Territorial del
Transporte de Gipuzkoa